Lan-eskaintzen erregistroa 2020ko irailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2020ko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 822 izan da, abuztuan baino 452 gehiago eta joan den urteko irailean baino 870 gutxiago. Egunean bataz bestez 40 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 23 eskaintza gehiago egunean. Hilabete honetako datuak ezin dira ulertu Covid-19ak sortutako krisia eta ondorengo alarma egoera kontuan izan gabe.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2020ko irailean 124 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 327 Gipuzkoan eta 371 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 45,1 Bizkaiko KAUetan erregistratu dira, % 39,8 Gipuzkoan eta % 15,1 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 72,2 hazi dira eskaintzak (52 eskaintza gehiago), Gipuzkoan % 186,8 hazi dira (213 eskaintza gehiago) eta Bizkaian eskaintza hazkundea % 101,6koa izan da (187 eskaintza gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 58 eskaintza gutxiago erregistratu dira, % 31,9ko murrizketa; Gipuzkoan eskaintza kopurua 413an jaitsi da, % 55,8ko murrizketa, eta azkenik, Bizkaian 399 eskaintza gutxiago izan dira, % 51,8ko murrizketa.

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. 5 eskaintzetatik 1, zientzia teknikarien lanbide-profilerako erregistratu dira (166 eskaintza) eta eskaintzen %18 Industriako lanbide-profilerako (148). Zerbitzuen, lanbide ez kualifikatuen eta laguntza teknikarien eskaintzak, ere, pisu nabarmena dute; 131, 119 eta 112 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak zuzendarienak eta lehen sektorekoenak izan dira, 8 eta 9 eskaintza, hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, profil guztietako eskaintzak hazi dira. Gehien hazi den profila, balore absolutuetan, zientzia teknikariena izan da, 78 eskaintza gehiago (% 88,6ko igoera); balore erlatiboetan, aldiz, laguntza teknikariena izan da, % 202,7ko hazkundea (75 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak jaitsi dira. Zientzia teknikariena izan da, balore absolutuetan, gehien murriztu dena (197 eskaintza gutxiago, % 54,3ko murrizketa). Balio erlatiboetan, aldiz, zerbitzuetako eskaintzak izan dira (%57,6ko murrizketa, 178 eskaintza gutxiago).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako lan-eskaintzen % 13,2k kontratu mugagabea eskaini dute; % 86,1ek, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,7k, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 108 izan dira, 65 gehiago aurreko hilabetearekin alderatuz, %151,2ko hazkundea. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 383 eskaintza gehiago erregistratu dira: 708 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 117,5ekoa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2020ko irailean 6 izan dira, aurreko hilean baino 4 gehiago.



Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 90 gutxiago izan dira (%45,4ko murrizketa), aldi baterako kontratuen eskaintzak %52 murriztu dira; 768 eskaintza gutxiago, eta, azkenik, merkataritzako kontratuak 12 gutxiago izan dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2020ko irailean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenak (608 eskaintza) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12k (99 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, urte batetik 3 urte artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek %2,6ko pisua dute (21 eskaintza) eta 5 urtetik gorakoen kasuan, 3 eskaintza izan dira hilabete honetan.



Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza mota guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (321 eskaintza gehiago, % 44,9ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, 1 eta 3 urteko esperientzia denbora eskatzen dutenak dira gehien igo direnak (% 209,4ko hazkundea, 67 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak murriztu dira. Gehien murriztu diren eskaintzak 0 eta 6 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira balore absolutuetan (695 eskaintza gutxiago, % 53,3ko murrizketa); balore erlatiboetan, aldiz, 6 eta 12 hilabete arteko esperientzia eskatzen dutenak izan dira (% 58,8ko murrizketa, 130 eskaintza gutxiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 9 hileko esperientzia eskatzen dute.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin hasi baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 16,4k zehazten du datu hori (822 eskaintzetatik 135). 135 eskaintza horietatik, 104 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 31ak, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 6a gehiago izan dira abuztuarekin alderatuz, hau da, % 160 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak 9 gehiago izan dira; hazkunde erlatiboa % 40,9koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 55 gutxiago izan dira (% 34,6ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko 36 eskaintza gutxiago erregistratu da (% 53,7ko murrizketa).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 2 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez. Abuztuan ez zen lan eskaintzarik kudeatu, eta iazko irailean 7.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 85,3k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 822 eskaintzetatik 121ek soilik zehaztu dute.

127 eskaintza horietatik, 58k LHko prestakuntza maila eskatu dute (% 47,9); eta beste 39k unibertsitateko ikasketak(%32,2). Ondoren, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak daude 14 eskaintzekin. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude, 10 eskaintza, erregistratzeko orduan adierazle hau zehaztu duten 121 eskaintzen artean.

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, hazi egin dira eskaintza mota guztiak. Gehien igo direnak, balore absolutuetan, LHko prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira (35 eskaintza gehiago, % 151,2ko hazkundea). Aldiz, balore erlatiboetan, batxilergo prestakuntza maila eskatzen dutenak izan dira gehien hazi direnak (% 233ko hazkundea, 7 eskaintza gehiago).

2019ko irailarekin alderatuz, eskaintzak mota guztiak murriztu dira. Gehien murriztu direnak, balore erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira (31 eskaintza gutxiago, % 68,9ko jaitsiera). Unibertsitateko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira balio absolutuetan gehien jaitsi direnak; 57 eskaintza gutxiago erregistratu dira (-%59,4).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen diren jarduerak, manufaktura-industria, merkataritza eta eraikuntza dira; eskaintzen %14,2ko pisua manufaktura-industrian (117 eskaintza), eta % 13,1eko pisua beste bietan (108 lan-eskaintza jarduera bakoitzean).

Aurreko hilari erreparatuz gero, ia eskaintza guztiak hazi dira. Gehien hazi diren motak, bai balore absolutuetan zein erlatiboetan, eraikuntzako eskaintzak izan dira (83 eskaintza gehiago, % 332ko hazkundea). Gehien murriztu direnak, aldiz, higiezinen arloko jarduerak izan dira (4 eskaintza gutxiago, %100eko jaitsiera).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eboluzio okerrena pairatu duten eskaintzak, balore absolutuetan, manufaktura industriakoak izan dira (159 eskaintza gutxiago, % 57,6ko murrizketa). Balore erlatiboetan, higiezinen arloko jarduerak eta argindar horniketakoak izan dira (% 100eko murrizketa bi kasuetan, 3 eta 2 eskaintza gutxiago, hurrenez hurren). Eskaintza kopurua hazi den jarduera bakarra, ur horniketako izan da, eskaintza bat gehiago erregistratu baita.